



BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN (BBUP) GALINDOKO HUA APARRAREN KONTRAKO PRODUKTUAZ HORNITZEA

2. DOKUMENTUA

PRESKIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarekin (aurrerantzean, BBUP) egin beharreko kontratuaren xedea hau da: Galindoko HUArri aparraren kontrako produktuaz hornitzea azken isurketan aparrak ezabatzeko.

Galindoko HUArri aparraren kontrako kantitate hau hornitu beharko zaio

- Galindoko HUA 60.000 kg

Aipatutako zenbatekoak adierazgarriak izango dira, eta guztira hornitu beharreko azken kantitatea aldatuko dira benetako beharren zein diren; hala bada, ez da hornitu beharreko gutxieneko kantitaterik ezarriko, eta horrek ez du inolako aldaketarik eragingo gainerako kontratu-kondizioetan.

Kontratuaren barruan sartzen da, eta ondorioz, hornitzailearen ardura da, produktua jatorrian ontziratzea, jatorrian kargatzea, helmugaraino garraiatzea eta HUArri instalazioetan deskargatzea.

2. ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

2.1. EZAUGARRI FISIKO-KIMIKOAK

Galindoko HUArri eta HUA Periferikoetako aparrak ezabatzeko produktuaren zehaztapen fisiko-kimikoak honako hauek izango dira:

- Konposizioa..... Alkoholen emulsioa
- Printzipio aktiboa..... ≥ 20
- Izaera kimikoa..... Ez-ionikoa
- Disolbagarritasuna..... Uretan sakabanagarria
- pH..... 7 ± 2

Produktuak ez ditu eduki behar alkil fenol etoxilaturik, ez eta irailaren 11ko 817/2015 Errege Dekretuan, azaleko uren egoeraren jarraipena eta ebaluazioa egiteko irizpideak eta ingurumen-kalitatearen gaineko arauak ezartzekoan, zehaztutako lehentasunezko substantziarik ere. Halaber, eskaintako produktuaren dentsitatea, biskositatea, izozte-puntua eta egonkortasuna (bizitza baliagarria) adierazi beharko dira.



Erabilera normaleko kondizioetan eta jatorrizko forman, produktuak ez du osasunerako eta ingurumenerako eragin negatiborik izan behar, eta ez du arriskutsuko sailkapena izango, orobat, 1272/2008 [CLP] erregelamenduaren arabera.

2.2. ZEHATZAPEN OROKORRAK

Hornitu beharreko produktua APARRAREN KONTRAKOA izango da, honako zehaztapen hauekin:

- Produktua eraginkorra izan beharko da Galindoko HUAko azken efluentean aparrak ezabatzeko, ibaira isuri aurretik, eta bereziki formulatuta egongo da apar artifiziala sortzea eragozteko, HUAren efluentearen kalitatea aldatu gabe eta ibilguan bestelako aldaketarik eragin gabe (usainak, ageriko orbanak ibaian eta abar).
- Eskainitako produktuei dagokienez, zehaztapen fisiko-kimiko bakoitzerako bermatzen dituzten zenbakizko balio zehatzen deklarazioa aurkeztu beharko da, bai eta segurtasun-datuaren fitxa ere, eguneratua aplikatu beharreko araudiaren arabera, eta bertan eskatutako formatuarekin eta edukiekin.
- Hornidura zisterna bidez edo 1.000 litroko SEH (IBC) bidez egin beharko da, HUAen beharren arabera. Produktua biltegitratzeko erreserbatutako lekuan kokatuz egingo dira hornidurak. Eragiketa guztiak, karga eta garraioa barne, hornitzailearen kontura izango dira, eta ADR Erregelamenduaren legezko kondizioak bete beharko ditu. Produktuaren hornidura 1.000 litroko plastikozko SEHetan (IBC) egiten bada, barrenetik hustekoak izango dira eta babesteko egitura metalikoa edukiko dute.

Oro har, eta eskainitako aparraren kontrako produkturako, kontrolaren ondorioetarako kontuan hartuko den kalitate-parametroa produktu aktiboaren ehunekoa (pisuan) izango da. Lehiaketariak adierazi beharko du emandako produktu sorta bakoitzaren produktu aktiboaren %a nola egiaztatuko duen.

2.3. PRODUKTUEN BALIOZKOTZE-PROBAK

Galindoko HUAn egindako industria-proba baten bidez frogatu beharko du produktuaren efikazia, produktua astebetean erabiliz. Egoerarik okerreanean (efluente biologikoaren 6 m³/s-ko emaria eta itsasbehera) gehienez onartuko den produktu dosia 6 litro ordukoa baino txikiagoa izan beharko da beti, eta produktua erabiltzeak efluentean aparrak ez egotea ekarri beharko du ezinbestean.

Balidazio-proba gainditzen ez duten produktuak ez dira egokitzen hartuko, eta adjudikaziodunak beste produktu bat hornitu beharko du, 2.1 puntuko ezaugarriak beteta hura gainditzeko modukoa.

2.4. ONTZIRATZEA, ETIKETATZEA, HORNIDURAREN ERREGULARTASUNA ETA STOCKA



Adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du BBUPEk ezarritako erregularitasunez gauzatzeko hornidurak.

Hornitutako produktu-edukiontzia behar bezala etiketatuta egon beharko dira. Hornitutako produktu-ontzi bakoitzean honako etiketatze-kondizio hauek bete beharko dira:

Fabrikatzailearen jatorrizko etiketa, informazio honekin:

- Fabrikatutako produktuaren marka komertziala
- Fabrikatzailearen izena
- Fabrikatzailearen helbidea
- Fabrikazio-data
- Fabrikazio-lotea
- Produktuaren iraungipena
- Segurtasun-piktogramak

Banatzailearen edo merkaturatzailearen etiketa, informazio hauekin:

- Banatzailearen izena
- Banatzailearen helbidea
- Produktuaren marka komertziala banatzailearentzat

Fabrikatzaileak identifikazio-etiketak ez jartzea bidalketa itzultzeko arrazoia da batzuetan.

Lehiakideek hornidura-modua eta produktua kontserbatzeko kondizio egokienak zehaztuko dituzte beren eskaintzan.

Hornidura bakoitza 7 egun naturaleko gehieneko epean, BBUPEk bidalketa-agindua ematen duenetik zenbatzen hasita.

Ontziak instalazioan deskargatzeko dauden baliabideetara egokitu beharko dira. Ontziren batek betekizun hori betetzen ez badu, berori betetzen duen beste ontzi batez hornitu beharko du adjudikaziodunak, edo, bestela, deskarga zuzena egitea ahalbidetuko duten baliabide egokiak eman beharko ditu.

BBUPEk ez du ontzi bakar baten gaineko kargurik eta ordainketarik onartuko. Adjudikaziodunak aukera hori kontuan hartu beharko du prezioa zehazteko garaian.

Ontzi hutsei dagokienez, adjudikazioduna arduratuko da haiek indarreko legeriaren arabera eta kudeatu behar den hondakin motaren arabera kentzeaz, mantentzeaz eta birziklatzeaz, baina horrek ez dio inolako kargu gehigarririk ekarriko BBUPi.

2.5. GARRAIOA

Erreaktiboa kamioietan garraiatuko da, eta kamioiek lege ezarritako kondizio guztiak bete beharko dituzte, bai eta produktuaren segurtasun-fitxatik eratorritakoak ere. Kontratua indarrean dagoen bitartean produktua arriskutsutzat jotzen bada edo Salgai Arriskutsuak Errepidez Garraiatzeari aplikatu beharreko erregelamendua bete beharrekoetan sartzen bada, araudi



horren ondoriozko neurriak eta xedapenak aplikatuko dira; nolanahi ere, kontratuan ezarritakoari ezingo dio eragin aplikazio horrek.

Xedapen haietakoren bat ez betetzea aski arrazoi izango da karga jatorrira itzultzeko. Adjudikazioduna erantzule zuzena izango da, nola BBUPi dagokionez hala hirugarrenei gagozkiela, produktua kargatzean, garraiatzean edo deskargatzean izandako istripu edo gorabeherak eragindako edozein kalterengatik, baita garraibidearen edozein elementuren garbiketa okerrean ondoriozkoengatik ere.

Bidalketa bakoitzari nahitaez erantsi beharreko garraio-gutunean garraiolariak (ibilgailuaren gidariak) sinatutako adierazpen bat jasoko da. Adierazpen horretan argi eta garbi adieraziko da garraiatutako salgaiaren arriskugarritasunaren, izaeraren, kantitatearen eta arriskuen berri duela eta istripu, sute, ihes, haustura edo narriaduragatik hartu beharreko neurrien arabera aplikatu beharreko xedapen orokor eta bereziak ezagutzen dituela, gidariak eta ibilgailuak indarreko legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela jakiteaz gainera.

BBUPek ez du inolako erantzukizunik onartuko baldintza horiek ez betetzeagatik.

2.6. HORNIGAIEN HARRERA ETA DESKARGA

Zama- eta garraio-eragiketa guztiak hornitzailearen kontura izango dira. Kamioiek, premiazko arrazoirik ezean, astelehenetik ostiralera bitartean deskargatuko dute produktua, lanegunetan betiere, eta 15:00etatik 20:00etara bitartean, baldin eta bestelako ordutegirik adierazten ez bada eskaria egitean. Ordutegi horretatik kanpo ez da bermatzen deskargatzeko aukera egongo denik.

Hornidurak HUAn egingo dira, eta produktua ustiapen-zerbitzuek adierazitako tokian jarriko da. Instalazioko zerbitzuko langileek eta, bereziki, txandaburuak edo postuen koordinatzaileak arduratuko dira deskarga ikuskatzeaz, deskarga eta segurtasuneko ekipoen egoera eta funtzionaltasuna egiaztatzeaz, bai eta dokumentazioa egiaztatu eta konformatzeaz ere. HUAKo instalazioek ez dute deskarga-ponparik; beraz, hornidura zisternan egiten denean, deskargatzeko bitartekoak eduki beharko ditu; ahal bada integratuta eduki beharko du ponpa, eta, halakorik ezean, zisterna presurizatuta.

Benetan hornitutako produktu kantitateak eskaeran eskatutakora egokituko dira. BBUPi egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik bidalitako produktuaren kantitatea eskaeran eskatutakoa baino handiagoa bada, ez da bermatuko bidalketa oso-osorik deskargatuko denik, eta instalazioaren biltegiatze-edukiera gainditzen duen zati bat edo eskaera osoa itzultzeko aukera egongo da; nolanahi ere, horrek ez dio hornitzaileari eskubiderik emango erreklamaziorik egiteko.

Materialaren garraio bakoitzak identifikazio-zehaztapenak izango ditu, informazio honekin irakurtzeko moduan markatuta:

- a. Albarana eta/edo garraio-gutuna, bidalketaren datu osoekin, honako hauek barne: produktuaren merkataritza-izena, kalitatea, pisu gordina eta garbia (edo fabrikako edo biltegiko baskularen tiketa), hornitzailearen eta/edo fabrikatzailearen izena eta helbidea, eta fabrikazio-data.



- b. Fabrikatzailearen analisi-buletina, zehaztapenetan eta adostasun-adierazpenean eskatutako parametroen balioak jasotzen dituen.
- c. Garraiolariaren eta bere ibilgailuaren identifikazioa eta gidariak sinatutako adierazpena, zamaren izaeraren ondorioz aplikatu beharreko xedapen eta neurrien berri duela adierazten duena, agiri honetan zehazten den bezala.

Eskatutako datuen bat falta bada edo emandako datuen bat egiazkoa ez bada, BBUPek ahalmena izango du bidalketa itzultzeko.

Instalazioko langileek deskarga-punturainoko ibilbideari buruz emandako jarraibideak bete egin beharko ditu ibilgailuaren gidariak.

Ingurumen-gorabeherarik edo -istripurik gertatuz gero, adjudikaziodunak ahalik eta lasterren jakinaraziko dio gorabehera Kontratuaren arduradunari. Gorabeherari buruzko txosten idatzia (arrazoiak eta hartutako ekintza zuzentzaileak) eskatu ahal izango dio.

Substantziak istripuz isuriz gero, berehala bilduko dira, landare-lurzorura eta saneamendu-sarera iristea eragotziko da, eta BBUPi ahalik eta lasterren jakinaraziko zaio.

2.7. LAGINAK HARTZEA

BBUPek lagina hartzeko eskubidea izango du deskargatu bitartean. Bidalketak deskargatzean aldiari behin (gutxi, bost aldiz) hartutako antzeko kantitateekin osatuko da.

Lagina 1.000 ml-koa edo izan beharko da gutxi. Behar bezala homogeneizatutako lagin osotik beste hiru lortuko dira: bat HUAN analizatzeko, beste bat hornitzailearentzat eta hirugarrena, hala badagokio, hornitzailearekin batera analizatzeko.

BBUPek egindako analitik ondorioztatutako kalitatea eskatutakoa baino txikiagoa bada, bidalketa jasotzen denetik 10 egun igaro baino lehen emango zaio horren berri hornitzaileari. Hornitzaileak egutegiko 5 egun izango ditu, abisua ematen zaionetik, erreserbatutako laginetako bat entrega egin zeneko tratamendutegiko laborategitik ateratzeko. Epe hori igaro eta hornitzaileak lagina kentzen ez badu, suntsitu egingo da, eta ulertuko da hornitzaileak egokitzat hartzen duela BBUPek lortutako emaitza.

Alderaketaren ondoren akordiorik lortzen ez bada, hornitzaileak beste analisi bat proposatu ahaliko du erreserbatutako hirugarren laginari buruz; bi aldeek onartutako erreferentziako laborategi ofizial batean egingo da analisi hori, eta laborategi horren emaitzak azken emaitza gisa onartuko dira. Azken analisi horren ondoriozko gastuak hornitzailearen kontura izango dira emaitzak BBUPek egindako analisiarekin bat badatoz, eta BBUPen kontura, berriz, bat ez badatoz. Azken saiakuntza hori behin betikoa izango da produktuaren konposizioa finkatzeko.

2.8. LAGUNTZA TEKNIKO

Kontratuak dirauen bitartean, enpresa hornitzaileak sorospen-zerbitzu tekniko bat jarriko du BBUPen esku, gutxienezko estaldura honekin:



- Telefonozko laguntza urteko lanegun guztietan, bulegoko ordutegiak, hornitutako produktua erabiltzeari buruzko kontsulta teknikoak ebatzeko.

3. NEURTZEA ETA ORDAINTZEA

Hau da aurreikusitako erreaktibo-kontsumoa:

Zisternak	Galindo	56.000 kg
SEH edukiontziak, 1 m ³ -koak	Galindo	4.000 kg
GUZTIRA		60.000 kg

Zisternan eta SEHan hornitutako kantitateen banaketa baliteke aldatzea HUAren beharrak zein diren, adierazitako guztizko kantitatea gainditu gabe.

Erreaktiboaren ordainketa instalazio hartzaileetan deskargatutako kg bakoitzeko egingo da, eta prezioak barnean hartzen ditu garraioarekin eta zama-lanekin loturiko egitekoak.

Hornidura hileko ziurtagirien bidez ordainduko da. Hil bakoitzeko 5a baino lehen, hornitzaileak aurreko hilean egindako horniduren zerrenda baloratua aurkeztu beharko du, eta berau oinarritzat hartuko da hileko ziurtagiria egiteko. Hileko faktura hileko zerrenda baloratuarekin bat etorri beharko da.

4. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

Adjudikaziodunak nahitaez aplikatu beharko ditu Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean jasotako prebentziozko ekintzaren printzipioak.

Kontratistari dagokio agiri honetan jasotako lanetarako beharrezkoak diren babes kolektiboko ekipamendu guztiak edukitzea. (Adib.: gas-detektagailuak, erreskate-ekipoak, arnasketa-ekipoak, seinaleztapen-elementuak eta abar)

Lanak hasi aurretik, hasierako bilera bat egingo da. Bilera horretan, 31/95 Legearen 24. artikuluan eta 32 bis artikuluan eta 171/2004 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera egin beharreko lanak aztertuko dira, lan horietarako beharrezkoak diren koordinazio-bitartekoak esleitzeaz gain.

Bilera horretan, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak honako hauek emango dizkio enpresa adjudikaziodunari:

- BBUPEk enpresa kontratistaren esku Lan Kondizioen Arriskuen Ebaluazioa jarriko du; bertan jasoko da enpresa kontratistako langileek zer arrisku izango dituzten BBUPEko instalazioetan egindako lanen ondorioz, bai eta arrisku horiek eragotzi edo arintzeko aplikatu beharreko neurriak ere.
- BBUPEk Larrialdi Plana helaraziko dio enpresa kontratistari, edo halakorik ezean, enpresaren lanak garatzen diren instalazioetan larrialdia izanez gero jarraitu beharreko aginduak.



Kontratuaren arduradunak honako dokumentu hauek aurkezteko eskatuko dio enpresa adjudikaziodunaren ordezkariari:

- Prebentzioaren antolaketa motak.
- Erantzukizun zibileko aseguru eta ordainketan egunean egotearen egiaztagiria.
- Gizarte Segurantzarekin egunean egotearen egiaztagiria (hilero bidali beharko da).
- Arriskuen ebaluazioa.
- Lan prozedura, zama-lanaren arriskuak eta prebentzio-neurriak zehazten dituenak.
- Frogagiria, garraioa azpikontratutako —eta ondorioz BBUPen instalazioetakoren batean sartu beharreko— enpresari edo enpresei arrisku-ebaluazioaren eta lan-prozeduren edukiaren berri eman izana adierazten duena.

Sestaon, 2025eko urtarrilean

Kontratuaren arduraduna,

Izpta.: Koldo Lekue Marcos.